

MEMORIA

AURKIBIDE OROKORRA

1. DOKUMENTUA – MEMORIA ETA ERANSKINAK

1. AURREKARIAK
2. 1. PROIEKTU ALDATUAREN XEDEA
3. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA. JUSTIFIKAZIOA
4. LURREN ERABILGARRITASUNA
5. EGIKARITZE-EPEA
6. ESLEIPEN-SISTEMA
7. LANEN PROGRAMA
8. PREZIO KONTRAJARRIAK
9. AURREKONTUA
10. 1. PROIEKTU ALDATUAREN DOKUMENTUAK
11. ONDORIOA

MEMORIAREN ERANSKINAK

1. ERANSKINA: 1. ALDAKETA IDAZTEKO BAIMENA EMATEKO EBAZPENA
2. ERANSKINA: KONTRATISTARI ENTZUTEA
3. ERANSKINA: ALDAKETEN JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA
4. ERANSKINA: PREZIO KONTRAJARRIAK FINKATZEKO AKTA
5. ERANSKINA: OBRA-PLANA

2. DOKUMENTUA – PLANOAK

3. AGIRIA – BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA

4. DOKUMENTUA – AURREKONTUA

- NEURKETAK
- PREZIOEN 1. TAULA
- PREZIOEN 2. TAULA
- AURREKONTU KONPARATUAK
- AURREKONTUAREN LABURPENA

5. DOKUMENTUA – ERAGINDAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

1. DOKUMENTUA – MEMORIA ETA ERANSKINAK

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK
2. 1. PROIEKTU ALDATUAREN XEDEA
3. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA. JUSTIFIKAZIOA
4. LURREN ERABILGARRITASUNA
5. EGIKARITZE-EPEA
6. ESLEIPEN-SISTEMA
7. LANEN PROGRAMA
8. PREZIO KONTRAJARRIAK
9. AURREKONTUA
10. 1. PROIEKTU ALDATUAREN DOKUMENTUAK
11. ONDORIOA

MEMORIAREN ERANSKINAK

1. ERANSKINA: 1. ALDAKETA IDAZTEKO BAIMENA EMATEKO EBAZPENA
2. ERANSKINA: KONTRATISTARI ENTZUTEA
3. ERANSKINA: ALDAKETEN JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA
4. ERANSKINA: PREZIO KONTRAJARRIAK FINKATZEKO AKTA
5. ERANSKINA: OBRA-PLANA

1. AURREKARIAK

2021eko abenduaren 16an, ETSko Kontratazio Arloko Batzorde Delegatuak kontratua esleitu zion FERROVIAL, S.A.-ri "BERNABEITIKO TRENBIDE-PASAGUNEA KANTZEKO ERAIKUNTZA-PROIEKTUAREN" obrarako, 1.975.479,88 euroko aurrekontuarekin eta 12 hilabeteko egitaritze-epearekin.

2022ko urtarrilaren 17an sinatu zen kontratua. 2022ko martxoaren 21ean Zuinketaren akta negatiboa sinatu zen. 2023ko azaroaren 17an Zuinketaren akta berria sinatu zen. 2023ko abenduaren 28an, Aldi Baterako Etenaldi Osoaren Ebazpena eman zen. Azkenik, 2024ko ekainaren 26an Zuinketaren beste akta bat sinatu zen, eta amaiera data 2025eko ekainaren 26rako ezarri zen.

2024ko ekainaren 20an, ETSko Kontratazio Arloko Ordezko Batzordeak "Bernabeitiko trenbide-pasagunea kantzeko" kontratuaren 1. proiektu aldatuaren idazketa baimentzea erabaki zuen.

2. 1. PROIEKTU ALDATUAREN XEDEA

Obrak prestatzen ari zirela, ustekabeko zenbait egoera sortu dira, proiektua idazterakoan nekez espero zitezkeenak, eta, ondorioz, beharrezkoa da kontratuaren Indarreko Proiektuan edo Oinarrizko Proiektuan agertzen ez diren soluzio teknikoetara jotzea. Soluzio tekniko horiek berekin dakarte kontratuaren aurrekontuan jasota ez dauden eta aurrekontua aldatzea dakarten obra-unitate berriak sartzea.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen edukiekin bat etorritik, aldaketek eragindako obra-zatiak egitaritu aurretik, Aldatutako Proiektua idatzi behar da.

Beharrezkoak diren aldaketetako bakar batek ere ez ditu jasotzen beste prestazio osagarri batzuk hasieran kontratatutakoez gain. Kontratuaren xedea zabaltzen dute, eta ez du jasotzen Esleitutako Proiektuan aurreikusitakotik aparteko edo kanpoko erabilera edo aprobeixamendua izan dezakeen prestaziorik.

Aldaketaren zenbatekoa esleipen-aurrekontuaren % 15 baino handiagoa denez, Legearen 205.2c artikulua araberan, aldaketa funtsezkotzat jo daiteke.

Proposatzen diren aldaketak interes publikokotzat jotzen dira obrak behar bezala eta aurreikusitako epean amaitzeko.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen edukien arabera, aldaketa horiek 1. proiektu aldatua idaztea justifikatzen dute.

3. ALDAKETEN DESKRIBAPENA. JUSTIFIKAZIOA

1. proiektu aldatua idaztea justifikatzen duten arrazoiak, indarrean dagoen proiektuaren edo kontratuaren oinarritzko proiektuaren preskripzioei dagokienez, atal hauetan deskribatzen dira:

3.1. ZUBIBIDEAREN ZIMENTAZIOAREN ALDAKETA

Amorebietako Udalak 15 tonako karga muga jarri du obretara sartzeko zubian, inguruko beste obra batzuetako ibilgailuen zirkulazioak (Abiadura Handiko Trenbidearen obrak) eragindako kalteen ondorioz. Zubiak, ekipoetarako eta makinetarako dituen muga horiek direla eta, estribu eta pilareen zimentazio berria birdefinitu da eta taula arintzea erabaki da.

Proiektuan definitutako zubibidearen zimentazioa 850 mm-ko diametroko "in situ" piloteen bidez gauzatuko da. Horretarako, 75 tonako pisua duen "pilotagailu" bat erabili behar da.

Horregatik, eta obretarako ordezeko pasagunerik ez dagoenez, erabiliko den makineriaren pisua murriztuko duen zimentazio berria aztertzea erabaki da. Zimentazio hori 239 mm-ko diametroa duten mikropilote armatuen eta entzepatu berrietara doitutako estribuen bidez egingo da.

3.2. TAULAREN TIPOLOGIAREN ALDAKETA

Aurreko arrazoi berarengatik, taularen tipologia aldatzea proposatzen da, obrara garraiatuko diren eta ondoren mihiztatuko diren hiru sekzioen pisua murrizteko. Aldaketa planteatzen duen taula batez ere metalezkoa den egitura izatetik altzairuzko eta hormigoizko egitura misto izatera igarotzen da. Egitura hori tiradera-habe batez eta metalezko hegal-saihetsez osatuta dago. Soluzio honek obrara garraiatu beharreko egituraren pisua murrizten du.

Era berean, diseinatutako taula berriaren erremateak indarrean dagoen araudira egokitu beharko dira, eta euste-sistemen babes-maila aldatu beharko da.

3.3. LUR-HORMAREN ALDAKETA

Etorkizuneko trenbide-adarrean bidezubiaren lehen baotik lurak isurtzea saihesteko, jatorrizko proiektuak oinplano hautsiko horma eraikitzea aurreikusten du, 0,5 eta 4,85 metro bitarteko altuera aldakorreako, trazadurarekiko zeharka, 1. estribuaren azpian. URAK estribura sartzeko arrapalaren betelanean lur-ezpondaren hedadura murrizteko eskatzen duenez, eustorma bat egingo da trazadura zehar ezkerreko ertzean (ibaira ematen duenean). Horma hori horma berdearen tipologiarekin diseinatuko da, ingurunera egokitzeko.

Bestalde, kanpaina geotekniko osagarria egin ondoren, beharrezkoa da harri-lubetazko horma bat eraikitzea, hegoaldeko sarbideko arrapalaren zimenduaren hondeaketa-lanen eta lehendik dagoen bide baten artean lurrari eusteko.

3.4. LUBETEN ZIMENTAZIOAREN ALDAKETA

Kanpaina geotekniko osagarria egin ondoren, lubeten zimenduak harrobiko materialarekin hobetu beharko dira. Horretarako, metro bat inguruko sakonera hondeatu eta saneatuko da egungo lurraren kotaren azpitik.

3.5. EZPONDAK DRAINATZEKO SISTEMAREN ALDAKETA

Jatorrizko proiektuan galtzada eta espaloia drainatzea aurreikusten zen, zintarri drainatzailearen eta hodi lurperatuaren bidez, trazadurako hainbat tartetan zehar.

1. proiektu aldatuan, planteamenduaren ordean, drainatzea egingo da, galtzadaren beraren bidez, errondola eta zintarriaren bidez. Horiek biltzeko puntu jakin batzuetara eramango dituzte urak, zortzi eta hamazazpi metro bitarteko distantziara, eta hustubideak egingo dira zorrotzen bidez, ezpondatik lursaileraino. Jatorrizko proiektuan trazaduraren hasieran eta amaieran dauden biltzeko bi puntuak kontserbatuko dira.

3.6. ZUBIBIDEKO SARBIDEEN TRAZADURAREN ALDAKETA

Aldatutako proiektuak, halaber, zubirako sarbideen trazadura-aldaketa jasotzen du, lurren jabearen alegazio bat onartu delako.

Era berean, aldatutako proiektuak sarbide berriaren errealitate geometrikora egokitzen ditu bide-zoruak.

3.7. ARGIZTAPENA

Argiztapenaren atalean, aldatutako proiektuak lur-pikak eta konexio-koadro berria jasotzen ditu.

3.8. SEINALEZTAPENA

Trenbide-pasagunea kentzeko, 25+387 K.P.-an (Euba) zegoen aurreko trenbide-pasagunea kendu ondoren, seinaleak aldatu behar dira zirkulazioen egoera berrira egokitzeko.

3.9. OBRAKO ETXOLAK

Proiektuak, hasiera batean, bulegoak partekatzen zituen goian aipatutako Eubako trenbide-pasagunea kentzeko obrarekin, eta, beraz, aurrekontuan ez dira obra-etxolak jasotzen. Aldatutako proiektuak horien ezarpena jasotzen du.

4. LURREN ERABILGARRITASUNA

Proiektu honetan jasotako obra berriek 003-0232-004 lurzatiaren desjabetze osoa eta aldi baterakoa aldatzea dakarte, lurzati horretako bidearen trazadurari dagokionez lursailaren jabeak egindako alegazioa onartu delako.

5. EGIKARITZE-EPEA

Arestian deskribatutako lanek 12 hilabetekoko egikaritze epea dute.

6. ESLEIPEN-SISTEMA

Aldaketa honetan aurreikusitako unitate berrien prezioak kontraesanean jarri dira Litzitazioarako Oinarritzko Proiektuko obren Kontratatistarekin, eta 1. proiektu aldatuaren ondoriozko aurrekontu gehigarriak ez du kontratuaren prezioaren % 50 gaintzen. Hori dela eta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikulua eta Sektore Publikoko Kontratuen Erregelamenduaren 158. artikulutik 162.era bitartekoaren arabera, 1. proiektu aldatuan definitutako obrak FERROVIAL CONSTRUCCIÓN, S.A. Obra-kontratuaren Kontratista Esleipendunari esleitu zaizkio.

7. LANEN PROGRAMA

1. Proiektu Aldatuari dagozkion jarduketa berriek memoriahonen 5. Eranskinean jasotzen den Obra Planean agertzen dira.

8. PREZIO KONTRAJARRIAK

Proiektuaren 1. eranskinean Prezio Kontrajarriak Finkatzeko Akten kopiak daude, bi aldeek behar bezala sinatuta.

9. AURREKONTUA

1. Aldaketaren arabera, Obrak Egikaritzeko Aurrekontua MILIOI BAT BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA BI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA BAT ZENTIMOKOA (1.942.699,81 €) da.

1. Aldaketaren arabera, Obrak Kontrata bidez Egikaritzeko Aurrekontua BI MILIOI HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR MILA ETA LAUROGEITA HAMAHIRU EURO ETA HIRUROGEITA HAMA ZAZPI ZENTIMOKOA (2.370.093,77 €) da, aurreko aurrekontua % 22 handituz gastu orokor eta industria-mozkin gisa, eta BI MILIOI ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA ZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAHIRU EURO ETA BERROGEITA SEI ZENTIMO (2.867.813,46 €) BEZ barne.

Aldatutako proiektu honen eta esleipen-proiektuaren arteko MILIOI BAT BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA ZORTZI ZENTIMOKO (1.975.479,88 €) Kontratua Egikaritzeko Aurrekontua HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU MILA SEIEHUN ETA HAMAHIRU EURO ETA LAUROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (394.613,89 €) igo da, BEZik gabe.

Urterokoak honela geratzen dira:

2023. urtea:	50.173,72 €
2024. urtea:	751.348,97 €
2025. urtea:	1.568.571,08 €
GUZTIRA:	2.370.093,77 €

10. PROIEKTU ALDATUAREN DOKUMENTUAK

1. DOKUMENTUA – MEMORIA ETA ERANSKINAK

1. AURREKARIAK
2. 1. PROIEKTU ALDATUAREN XEDEA
3. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA. JUSTIFIKAZIOA
4. LURREN ERABILGARRITASUNA
5. EGIKARITZE-EPEA
6. ESLEIPEN-SISTEMA
7. LANEN PROGRAMA
8. PREZIO KONTRAJARRIAK
9. AURREKONTUA
10. 1. PROIEKTU ALDATUAREN DOKUMENTUAK
11. ONDORIOA

MEMORIAREN ERANSKINAK

1. ERANSKINA: 1. ALDAKETA IDAZTEKO BAIMENA EMATEKO EBAZPENA
2. ERANSKINA: KONTRATISTARI ENTZUTEA
3. ERANSKINA: ALDAKETEN JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA
4. ERANSKINA: PREZIO KONTRAJARRIAK FINKATZEKO AKTA
5. ERANSKINA: OBRA-PLANA

2. DOKUMENTUA – PLANOAK

3. AGIRIA – BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA

4. DOKUMENTUA – AURREKONTUA

- NEURKETAK
- PREZIOEN 1. TAULA
- PREZIOEN 2. TAULA
- AURREKONTU KONPARATUAK
- AURREKONTUAREN LABURPENA

5. DOKUMENTUA – ERAGINDAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

11. ONDORIOA

Aurrekoarekin eta erantsitako dokumentuekin uste da behar bezala justifikatuta daudela proposatutako aldaketak. Hori dela eta, 1. proiektu aldatua E.T.S.-ko Kontratazio Arloko Ordezko Batzordeari aurkeztu zaio, hala badagokio onar dezan.

Bilbon, 2024ko azaroa

INGENIARIA, OBRA ZUZENDARIA

Sin.: Fernando Manuel Puente de la Torre

On. Ik.

ERAIKUNTZA ZUZENDARIA

Sin.: Rafael Marcano Ceballos